


Astekaria

BARRREN

elgoi



**Elgoibartarrak
mendi gailurretan**

LANGILE, GAZTE, EMAKUME, HERRITAR:

Hemen ez dago abstentziorako tokirik.

Boto galdu bat, PNV-PSOErentzako botoa da.

Zure botoa HERRI BATASUNARI

3 LAU HANKATAN

"... komunikabideek benetan deformatzen badute, ni Quasimodo izatera iritsiko naiz martxa honetan". **Hasier Etxeberria**

6 ELKARRIZKETA : IZARRAITZETIK NANGA PARBATERA

Aitor Esnaola, Pablo Barrenetxea eta bi azpeitiar, mediku murtziar batekin batera, pasa den asteazkenean Pakistan aldera abiatu ziren.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ZEIN EUSKALTEGI AUKERATU DUZU EUSKARA IKASTEKO?

Maribel Perez: "Udal Euskaltegien eredu jarraitzen dut eta dakidan guztia euskaltegi horietatik datorkidala esan behar dut".

Izaskun Vela: "Nire esperientzia pertsonala AEKn oso ona izan da eta ikasi dudana guztia eurei zor diet."

14 BERBETAN

"Euskaraz ikas zitekeen zerbaitegin nahi nuen". **Olga Unzila.**

16 KIROLA:

GAIA: EMAITZA ONAK JOKU ESKOLARRETAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAN
ELKARRIZKETA: **Aritz Monasterio:** Andetara joan da bakar bakarrik

20 ELKARTEETATIK BUELTAN

TRIKITILARI ESKOLA: ZALETASUNA GORAKA

21 KULTURA

SHANTI ORIA ELGOIBARTARRAREN MARGOAK KULTUR ETXEAN

TXANDAK

FARMAZIAK:

29, larunbata: **ETXEBERRIA**

30, igandea: **ETXEBERRIA**

31, astelehena: **ORMAZABAL**

1, asteartea: **ORMAZABAL**

2, asteazkena: **ORMAZABAL**

3, osteguna: **ORMAZABAL**

4, ostirala: **YUDEGO**

OKINDEGIAK:

30, igandea: **FOTERO**



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua

(Anbulatorioa)743936

Odol Emaileen elkarteak.....741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.740442

PESA (Eibar)112131

Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Mendaroko Udala756100

Ongizate zerbitzua743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

IMI741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32

Institutua74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegia

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Administrazioa
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste

Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aitor Lodoso, Susana Mugika, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Segundo Raigoso, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta.

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Helbidea
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
SS-1.038/92

ISSN
1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Hasier Etxeberria

Quasimodo

Egunoro sei-zazpi egunkari ezberdin erabiltzen ditut

eskuetan eta gainera beti dabilta bizpahiru aldizkari nere mahai gaineko paperen artean igerika. Telebista ia egunoro ikusten dut: albistegi, debate, dokumental eta filmeak. Nahi gabetan, ehun iragarki sartzen dira nere begietatik: autoak, saltxitxak eta bankuak.

Esnatu bezain azkar irratia pizten dut, klik eta edozein kalamitate eta gerrak ematen dizkit egunonak. Dutxatu eta bizarra kendu bitartean, hegazkin bat lehertzen da aidean bere berrehun bidaiariak dituelarik barnean, Indian zazpi uhaldetan hiltzen dira bi mila pertsona, eta gure politikariren batek lerdokeriaren bat esaten du losagabeki irratia altabozetatik.

Lanera joateko autoa hartzera oinez noan denborarekin, kaleetan ezarrira dauden mota guztietako txartelak ikusten ditut: telefono kabinetako kristaletan, hormetan... bazter guztietan. Autora heltzen naizenean, pare bat orrikentzen ditut bere aurreko kristaletik: ingeleseko ikastaro bat eta kantzontzioloak non erosi aholkatzen didate paper horiek.

Autoan sartu eta berriro ere, klik, irratia: gosetea, erreforma agrarioak eta bonbak. OH yeah!. Txin, pan, pun.

Lanera iritsi eta han daude, nere mahai gainean, haseran aipatutako zazpi egunkariak. Bat banaka hartu eta

ordenatu egiten ditut nere iritzi partikularren arabera: euskara gehien darabilenetik, batere ez darabileneraino. Egunkaria, Egin, Deia, Diario Vasco, El Correo, El Mundo eta El Pais.

Titularrak aztertzen ditut eta denak ezberdinak direla konturatzen naiz. Egiak ere badituela milaka aurpegi. Komunikabide bakoitza bere jabeen mesedetan dabilela, alegia.

Bat batean, Nazioarteko orrietan, pigmeo baten argazkia ageri da oiha-naren erdian telebista ikusten. Pigmeoa, nola ez, hipnotizatuta dago pantailatik irtetzen den argi urdinskarekin. Seguru asko ez ditu ikusiko telebista aparailuaren atzetik pasatzen diren elefanteak. Berak Volvo autoen iragarkietan ditu galduta begiak. Baina, zertarako behar ote du pigmeo batek volvo haundi bat?

Pentsamendu horietan nabilen bitartean, Agustin Garcia Calvo filosofo haundiaren gogoramena etortzen zait derrepentean. Gizon honek oso era berezian izendatzen ditu komunikabideak: "Medios de Deformación de Masas".

Kasualitate batez Garcia Calvok arrazoia baldin badu, komunikabideek benetan deformatzen badute, ni Quasimodo izatera iritsiko naiz martxa honetan. Notre Dameko kanpaiak jotzen zituen munstro konkordun hura izango naiz, handitzen naizenean.

DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Fotero

**OKINDEGIA
OPILDEGIA**

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Berdintasunaren izenean

Agur adiskideok:

Igandean gertatu zena-
ren berri eman behar
dizuegu guztiei.

Urtero bezala, igande
honetan, mezetan, Itun
berriak banatu dizkigute
Kristau ikasbidea egiten
ari garen 6. mailakoei.

Itun berri hauek bi moe-
tatakoak zeuden: euskaraz-
koak eta erderazkoak.

Euskaldunak garenez
denok euskarazkoak nahi
genituen eta nahi ditugu,
baina erederazkoak ere
banatu behar zituztela eta
ez zituztela, erderazko
guztiak bakarrik Herri
Eskolakoak garenon arte-
an banatu zizkiguten. Ai
ze kasualitatea!

Eliza denona baldin
bada eta denon artean
osutzen baldin badugu

gure artean ezberdintasun-
nik ez egitea eskatzen
dizuegu eleizkide batzuei.

Guk ere euskara era-
biltzeko eskubide osoa
daukagu eta erabili nahi
dugu. Besterik gabe agur-
tzen zaituztegu.

**Herri eskolako
6. mailako ikasleak**

**Ikastola,
publikoaren alde**

Astlehenean, hilak 24,
ospatu zuen Elgoibarko
ikastolak bere Ez-ohizko
Batzar Nagusia sare publiko
eta pribatuaren artean auke-
ra egiteko.

Junta Erretorak, Koope-
ratiba Legedia aintzakotzat
hartuz, zera adierazi zion
asanbladari: partaideen bi
herenak (2/3) beharko zirela
sare publikora pasatzeko.
Asanbladako zenbait partai-
dek, ordea, 1988ko maiat-
zaren 24ko "Ley para la

confluencia de las ikastolas"
(10/88) delakoari ikastola
honek emandako baietza
argudiatuz, tratamendu ber-
bera eskatzen zuen sare pri-
baturako, eta baremo horiek
lortzea zaila izango zenez,
gehiengo sinplea errebindi-
katzeko aukera demokratiko
eta egokitzat, beste ikastola
batzuetan egin bezala. Hala
eta guztiz, Junta Erretorak
entzregor egin zituen eta
soilik bere interpretazioa
bideratu bozketarako.

Bozketako emaitzak:

-Sare publikoan sartzea-
ren alde: 247 (%50,93)

-Sare pribatuaren alde:
238 (%49,07)

Gehiengoaren nahia bis-
takoa zenez, Junta Erretorari
behin eta berriz eskatu zi-
tzaion konponbide bat aur-
kitu behar zela berek ikus-
ten zuten "traba" legal hori
gainditzeko. Nabaria zen
kontraesana: gehiengoak
eskola mota konkretu bat
aldarrikatzen zuen; Juntak

bere "legalismoa" kontra-
jartzen.

Ez zuen bere posturarik
aldatu. Junta Erretorak, bere
interpretazioa berrretsiz,
sare pribatuan geratzeko
aukera bultzatu du, eta hala
kaleratu ere, asanbladako
partaideen gehiengo sare
publikoaren alde egon arren.

Horiek horrela, idatzi
honen bitartez, ikastolako
Junta Erretoraren jarrera
antidemokratiko eta itxia
salatu nahi dugu publikoki,
asanbladaren erabakiari
beraiek duten eritzia inposa-
tu diotelako organo honen
subiranotasuna hankaz gora
jarriz.

Ez babes legal, are gu-
txiago etikoa duen Juntaren
erabaki honen aurka, lege
zibilak eskain diezagukeen
bitartekotza eskatuko dugu
gure egoera berean dauden
beste hainbat ikastolarekin
batera

**Ikastolako hainbat
guraso eta irakasle**



Gipuzkoak, Euskadirekin batera,
aurrera egin behar du Euskadi hobetzeko.

EMAN BOTOA  **EAJ PNV_{ri}**



Aste honetako erretratu **Edurne Zabaletak** lagatakoa da. Bertan azaltzen denez, 1935. urtean San Migel auzoko txokoren batean ateratakoa.

Gogoan izango duzue duela aste batzuk San Lorentzoko ilustratuen erretratu atera genuela. San Migelekoak ere, gutxiago ez zirela demostratu nahian edo, ekarri digute bailarako eskolatik pasatakoen muestra bat. San Lorentzoko erretratuan gehientsuenak nagusitxoak ziren bitartean, oraingoa gaztetxoz jantzita azaltzen zaigu.

Gaztetxook etxeko soineko eta alkandora eleganteenak jantzi eta larrosa paparrean ipinita egoki prestatu ziren erretratuan irteteko. Bitxikeria bezala, erretratuan azaltzen den maistraren etxean borbondar bat hil omen zen gerra garaian; hildakoaren oroigarri bat ere ba omen da San Migelen.

Izen guztiak jakiterik ezinezkoa izan bada ere, ikus dezagun erretratuan azaltzen direnak.

Behetik hasi eta ezkerretik eskumara:

Lehenengo iladan: **Antonio Ziarda Etxeberri,**

Antonio Ziarda, (...), Gregorio Gurrutxaga, (...) eta **Jose (Etxetxo baserrikoa).**

Bigarren iladan: **Antonia Ojanguren** (maistra), mantalean, **Imanol Zabaleta** (maistraren semea), **Abdon Ansola, Joseba Zabaleta** (maistraren semea), (...), (...), **Miren Zabaleta** (maistraren alaba), **Bene Zabala, (...), Agustin (Etxetxo baserrikoa)** eta **Edurne Zabaleta** (maistraren alaba).


Hirugarren iladan: **Luzia (Olazaharra baserrikoa), Josefa (Biain baserrikoa), Nikolasa (Olazaharra baserrikoa), Maritxu (Etxetxo baserrikoa), (...), Pakita (Ziarda baserrikoa), Juanita Zabala** eta **Emilia Ansola.**

Laugarren iladan: **Ramona (Etxetxo baserrikoa), Maritxu Garagarza, Pakita Agote, Juanita Ansola, (...)** eta **Jose Luis Zabala.**

Gainontzeko auzoetakoak ere, herriaren aurrean lortsagarri geratu nahi ez baduzue behintzat, astindu baserriko kajoiak eta ekarri eskola garaiko erretratuak.

● *Inazio Bereziartua Musikeskola* ●

Solfeo, Koral, Instrumentu eta Dantza matrikulak zabalik daude
Ekainaren 1etik 15era. Plaza Agirre 3 - 1. (ordutegia: 5-7)



Izarraitzetik Nanga Parbatera

Aitor Esnaola, Pablo Barrenetxea eta bi azpeitiar, azken orduan espediziora batu zaien mediku murtziar batekin batera, pasa den asteazkenean Pakistan aldera abiatu ziren Nanga Parbateko gailurra egiteko asmoz. Joan aurretik Aitor eta Pablarekin hizketaldi bat izan genuen urtebetez prestatzen jardun duten "Nanga Parbat espedizioa"ren inguruko gorabeheren berri izateko. Hona hemen kontatu zigutena:



↳ Aitor eta Pablok urtebetez prestatu dute Nanga

-Zer ibilbide egin behar duzue igoyerari ekin aurretik?

Pablo: - Lehenengo Bilbotik Londresera goaz eta bertan gau bat pasatuko dugu. Arratsaldeko 3etan gutxigorabehera abioia hartuko dugu Islamabadera. Han asuntu burokratikoak egin behar ditugu.

Aitor: -26an Bilbotik irteten dugu eta 28an bertan egongo gara.

-Heldu ondoren, zer gauza gehiago egin behar duzue?

P: -Janaria erosi, "oficial de enlace" ezagutu, berari arropak eman, aduanara joan, enbajadara, turismora, ministeriora... Dena neurtuta daramagu, janaria, arropak... Agintariek dena begiratu eta onespina eman behar digute. Ondoren autobusa alokatu eta mendirantz joango gara.

-Zer da "oficial de enlace"?

A: -Militar bat da gurekin kontaktuan jarri eta guk daramaguna kontrolatzen

duena. Porteadoreekin ere harremanetan jartzen gaitu berak. Gobernuak bidaltzen du gu kontrolatzeko.

-Urduri alde egiteko?

A: -Urte bat pasa ondoren joateko irrikaz.

-Zeintzuk osatzen duzue espedizioa?

A: -Joanes Urrestilla eta Jon Garate azpeitiarrek eta gu biok. Azken orduan, iaz han egon zen Murtziako mediku batek deitu egin digu ia etortzerik zeukan. Medikua denez, ondo etorririko zaigu. Bera bere kontu ibiliko da.

-Eta xerpak?

P: -Bai, kanpamentu base-raino bultoa eramateko. Guztira 800 kilo daramagu.

A: -25 xerpak eramango dituzte gure gauzak.

P: -Gero xerpak jeitsi egingo dira eta gu bakarrik geldituko gara.

-Non jarri behar duzue kanpamentu basea?

P: -Diamir bailaran, 4.000 metrotara. Handik beste lau kanpamentu jarriko ditugu

gailurra bitartean.

-Zenbat egun 4.000 metrotara igotzeko?

P: -Hiru edo lau.

-Eta gailurrera?

P: -Baimena ekainaren 1etik uztailaren azken egunera artekoa da. Bi hilabete justu. Bi hilabete horietan ez bazara igotzen jeitsi egin behar zara.


A: -Zaila da kalkulatzea. Lehenengo gorputza ohitu egin behar da, aklimatatu. Zenbat eta gorago, oxigeno gutxiago dago eta asko nekatzen zara. Pixkanaka joan behar da. Lehenengo, 1. kanpamentura igo eta berriro jeitsi. Beste egun batean 2. kanpamentura arte, gero hirugarrena. Gorputza sendo ikusten duzunean 4. kanpamentura eta handik atakea, gailurrera arte.

-Itzuli beraz?

P: -Abuztuaren 8an. Gailurra uztailak 15ean gutxigorabehera egingo dugula kalkulatu dugu.

A: -Gailurra lortzen badugu,

Zortzi milako guztietatik desnibel handiena duena da. Eskalatu egin behar den 200 metrotako orma bertikal bat dauka eta denbora guztian 50 graduko inklinazioa dauka



Parbatera espedizioa.

turismo egiten geldituko gara, bestela buelta.

-Aitor, urtarrilean mendi istripua izan zenuen. Guztiz errekuperatuta?

A: -Bai, hori ahaztuta dago.

-Nola sortu zen espedizioa burutzeko ideia?

A: -Lehenago, gutako hiru Perun egon ginen eta etortzerakoan, elkarri burua berotu genion erabakia hartu arte.

P: -Lanean hasi ginen eta horretan ibili gara lortu arte.

-Zenbatekoa da espedizioaren aurrekontua?

P: -4 milioi pezetakoa.

-Nola finantzatu duzue ?

A: -Lan mordo eginez. Ez dugu laguntza ofizialik jaso eta, etxe potente bat ere ez da espedizioaz arduratu. Gauza asko ordaindu behar izan ditugu. Kamisetak saldu ditugu, jaietan txozna ipini genuen hemen eta Azpeitin... Poltsikotik ere dirua jarri behar izan dugu.

-Igoeran berrikuntzarik egingo al duzue?

P: -Ez. Oso zaila da.

A: -Hortik jende mordo aigo da eta horregatik ez diote hainbeste garrantzi ematen.

P: -Mendi zaila da, lehen aldiz joateko, batez ere. Badaude errazagoak eta normalean jendea errazagoetara joaten da.

-Zein zailtasun ditu?

A: -Kanpamentu basetik gailurrera 4.000 metro daude. Zortzi milako guztietatik desnibel handiena duena da. Eskalatu egin behar den 200 metrotako orma bertikal bat dauka eta denbora guztian 50 graduko inklinazioa dauka.

-Horren aurrean, prestaketa fisiko berezirik egingo al duzue?

A: -Bai, Federazioko medikuak esfortzu frogak egin zizkigun eta, gero, bakoitzaren arabera, entrenamendu bat jarri.

-Zenbat denbora entrenatzen?

P: -Urte hasieratik.

-Izozketen aurka neurri berezirik hartuko al duzue?

A: -Hori ezin da aurretik jakin.

P: -Prebentzio bakarra, fisikoki ondo egotea da. Altura horretan ur asko edatea komeni da, bi litro egunean.

A: -Zorte kontua da. Arropak ere egiten du baina niri gerta dakidake eta albokoari ez.

-Zergatik Nanga Parbat?

A: -Guk hasieran ez genuen Nanga Parbatera joaterik pentsatu baina azpeitiarrek bai. Diapositibetan ikusi eta gustatu egin zitzaigun. Mendi honek, denetarik dauka: haitza, izotza, puntak...

P: -Jende guztiak esan digu polita dela, ez zarela asperitzen.



Pablo Barrenetxea

● **Adina:**

P: -25

A: -24

● **Gailurrik altuena:**

P: -Aconcagua (Argentina).

A: -Huascaran (Peru).

● **Mendian ez zaudetenean?**

P: -Kirola egin, lagunekin irten, lan egin.

A: -Nik lanik ez. Nangara joateko gogor entrenatu.

● **Ametsetako mendia?**

P: -Nanga Parbat. Egunero egin dut amets.

A: -Nanga Parbat eta etorritakoan beste bat.

● **Oinez ala eskaltzen?**


P: -Eskaltzen.

A: -Eskaltzen.

● **Euskadi ala Euskaditik kanpo?**

P: -Hemen aukerak murriztak dira. Kanpoan gauza berriak egin daitezke.

A: -Kanpoan. Horrela mundua ezagutzen dugu.



Aitor Esnaola

Zein euskaltegi aukeratu duzu euskara ikasteko?

Zergatik aukeratu dudan Udal Euskaltegien irakaskuntza? Hizkuntza bat ikasi ahal izateko sasoi hobezina haurtzaroa besterik ez dela jakinagatik, helduek ere, jakina, zailtasun handiagoarekin, euskara ikas dezakete eta horretarako euskaltegiak dauzkagu.



Zoritxarrez, nire ikasketak A eremuan egin ditudanez gero, euskarari dago-kion nire jakintza maila guztiz mugaturik egon da, batik bat, kurtso bakoitzean hizkuntza honi emandako ordu malkartsuetan. Ikasketak amaitzerakoan, euskararekiko izandako ezaguera hain gordina zen, ezen Udal Euskaltegira joatea komeniko litzaidakeela pentsatu bait nuen. Ildo honetatik hasi zen nire lehenengo eskarmentua euskararekin.

Dena den, euskaldun berri batentzat has-tapenak zailak izan arren, euskara ikasteari gustora eutsi diot, zalantzarik gabe. Hizkuntza ez dudala euskaldun zaharrek adina menperatzen badakit ere, gure ama hizkuntza ez izateagatik, orain arteko akatsak barkatzeak ilusio handiagoz aritzeko balio dit.

Pertsona helduek hizkuntza berri bat

ikasi nahi izanez gero, metodologia aproposa behar dute eta Udal Euskaltegiak hortaz adi-adi arduratzen dire-lakoan nago. Halaber, erabilitako irakasbidea ezezik, irakasleen pres-takuntzak ere ez dauka ezer esatekorik, egokitzat jotzen dudalako. Nire ustez, euskararen maila on samarra izateko lau hizkuntz trebetasunen jabe izan behar da, eta hauek dira: entzundakoaren ulermena, mintzamina, irakurriaren ulermena eta idazmena. Horretarako ikasgelan material ugari dago. Honez gain, euskara ikasteaz gain, lagunak ere aurki daitezke.

Arrazoi guzti hauengatik, Udal Euskaltegien eredia jarraitzen dut eta, beraz, dakidan guztia euskaltegi horien irakaskuntzatik datorkidala esan beharrean nago.

Maribel Perez

Udal Euskaltegiko ikaslea



Beno, hasteko esan behar dut txikitatik eduki dudala euskara ikasteko joera hau. Txikia nintzenean ez nuen izan aukerarik eta gero institutuan suerte txarra izan nuen, lehen

kurtsoan bost maixu desberdin izan nituelako eta noski, bakoitzak bere sistema ezberdina zeukan erakusteko momentuan.

Hamasei urterekin nekien gauza bakarra zera zen: erakutsitako hiztegia. Beraz, bigarren kurtsoa gainditzeko klase partikularretara joan behar izan nuen eta hor berpiztu zen nere ikasteko gogo.

Hamazortzi urterekin euskara ikastea nahi nuen. AEK edo Udal Euskaltegira joatea erabaki behar nuen. Nere zalantzak nituen beraz, lagun bati galdetu ondoren AEKra joatea erabaki nuen, berak ondo eta giro onean ikasi zuelako hantxe. Bestalde, ez nuen Udal Euskaltegia aukeratu Institutuko sistimarekin antz handia zeukalako, azterketa eta guzti; neri azterketek bildurra ematen zidatenez, ez zitzaidan neretzat oso egokia iruditu.

AEKra joan nintzen aproba egitera eta hantxe geratu nintzen. Urte asko igaro ondoren esan daiteke erabaki ona izan zela, euskara poliki poliki, adiskidetasun giro

batean eta nik nahi nuen bezala ikasten ari naizelako. Nere helmuga une honetan ez da EGA ateratzeko azterketarik gainditzea. Hasieratik nire ametsa euskara ikastea izan da, egun batean polito hitz egiteko, baina hori bai, era lasai batean eta presiorik gabe.

Bukatzeke esan behar dut nere esperientzia pertsonala AEKn oso ona izan dela eta orain arte ikasi dudan guztia eurei zor diedala. Dena den, inportateena euskara ikastea eta hitz egitea da. AEKra edo Udal Euskaltegira joatea berdina da, hori norberaren aukera da.

Izaskun Vela

AEK Euskaltegiko ikaslea

ETA ZURE USTEZ?

Zein euskaltegi aukeratu duzu euskara ikasteko?



Mari Jose Zubiaurre
44 urte, AEKko ikaslea

AEKAn ikasi dut hurbilen zegoena zelako eta ordutegi aldetik hobeto egokitzen zitzaidalako. Beraien sistema gustatzen zait eta oso gustora egon naiz.



Inma Gonzalez
31 urte, AEKko ikaslea

Hizkuntzak komunikatzeko dira eta AEK n honetarako prestatzen ahalegintzen dira. Nik, umea daukadanez, lehenbailehen interesatzen zaidana hitzegitea da.



Celestino Rovira

31 urte, Udal E.ko ikaslea

AEK n lagunak dauzkat eta han mintzamina lantzen dute batez ere. Hemen, ordea, gramatika lantzen da eta niri gehiago interesatzen zait idazmena.



Fernando Mendieta

21 urte, Udal E.ko ikaslea

Euskara ikasi beharra neukan lehenbailehen eta Udal Euskaltegian bizkorrago ikasten zela esan zidaten. Oso gustura nago eta jendea oso jatorra da.



Maria Isabel Linero

19 urte, Udal E.ko ikaslea

Institutuko irakasleak gomendatu zidan hona etortzeko eta nik ere nahia nuen. Hemengo irakaskuntza sistema eta nik nahi dudana bat datoz.



Xabier Rodriguez

25 urte, AEKko ikaslea

Niri jende askok esan zidan AEK hitzegiten has-teko oso positiboa zela. Hori nahi dudanez apuntatzea erabaki nuen eta oso pozik nabil.

Ez dok amaitu! 93

MAIATZAK 28, OSTIRALA

- **Gaueko 11etan**, Maalako Parkean

MIKEL MARKEZEN KANTALDIA

(euria egiten badu Guassean izango da)

- **Gaueko 12etan**, Guass diskotekan(300 pta)

EUSKAL DISKOTEKA eta
ROCK AND ROLL LEHIAKETA



Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

MAIATZAK 29, LARUNBATA

- **Arratsaldeko 4etan**, Plaza Handian

I. ESKOLARTEKO TRIATLOIA

(Bizikleta, korrika eta patinak)

MAIATZAK 30, IGANDEA

"Lurra eta Hizkuntzaren eguna"

Morkaiko Mendizale Elkartearekin
batera antolatua.

Laguntzaileak: Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Ikastolaren etorkizuna ezbaian

Elgoibarko San Bartolome Ikastola P.M. Uruzuno kooperatibak, sare pribatuan jarraituko omen du, gehiengoak publikoaren aldeko botoa eman arren. Pasa den astelehen gauean, Ikastolako Batzorde Erretoreak eta kooperatibaren 489 bazkidek asanblada egin zuten gure herriko Ikastola sare publikoan sartu ala ez erabakitzeko. Asanblada gaueko 9etan hasi zen eta iraun zuen bitartean, Ikastola publikoaren aldekoen eta Batzorde Erretorearen arteko iritzi ezberdin eta tirabirak nabari agertu ziren. Eztabaida, Ikastola-kooperatibaren estatutu eta legeak direla eta sortu zen. Estatutuen arabera, Ikastola sare publikoan sartzeak, kooperatibaren disoluzioa dakar, eta erabaki hori asanbladaren bi hereneko gehiengoaz baino ezin daiteke hartu.

Ikastola publikoaren aldekoek, legea demokratikoa ez izatea adierazi zioten Batzorde Erretoreari eta arren, legea aintzakotzat ez hartzeko eskatu, gehiengoaren borondatea errespetatuz. Batzorde Erretoreak, ordea, legeak dioenari heldu behar zaiola adierazi zuen emaitzen inpugnaziorik ez gertatzeko.

Gurutze Gorriaren anbulantzia berria

Elgoibarko Gurutze Gorria elkarteak Eusko Jaurlaritzak emandako anbulantzia medikalizatu berria eskuratu du. Gurutze Gorria eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmenaren ondorioz, bost urtetik behin elkarte altruista honen anbulantziak berritu egiten dira. Anbulantzia berria, medikalizatu deitzen diren horietakoa da eta edozein motatako larrialdiri aurre egiteko prestatuta dago. Dena den, anbulantzia zaharra ez dute baztertuko eta zerbitzu bereziak, hau da, prebentziorako zerbitzuak betetzeko erabiliko dute.



Bozketan, gehiengo sinplea (erdia + 1) Ikastola publikoaren alde aterako balitz ere, legeak eskatzen duen bi hereneko gehiengo ez lortzerakoan, Ikastolak pribatu izaten jarraituko zuela adierazi zuen.

Bozketan 489 bazkidek eman zuen botua, hauetatik, 247 (50,93%) publikoaren alde izan zirelarik eta, 238 (49,07%) pribatuaren alde. Bederatzi boturen diferentziagatik, Ikastola publiko bihurtzearen aldeko emaitza eman zuen bozketak, baina legalki behar

den bi hereneko gehiengo lortu ezenez Ikastola pribatu izango dela erabaki zuen batzordeak. Publikoaren aldekoek irtenbide bat bilatzeko eskatu zioten Batzorde Erretoreari, gehiengoaren borondatearen izenean.

Dena den, Ikastola publikoaren aldeko guraso eta irakasleek beste herrietakoekin bat eginda, eta Hezkuntza Sailak bi herenen legearen balio gabetasuna adierazi ondoren, Batzorde Erretorearen erabakia inpugnatzekotan dabilta.



EDUARDO ARRILLAGA



Jendez gainezka zegoen Herriko Antzokia Dantza Eskolako haurren kurtso bukaerako jaialdia ikusteko. Ordu t'erdi pasatxo iraun zuen jaialdian, hainbat dantza saio eskaini zuten Dantza Eskolako haurrek: klasikoa, herrikoa eta modernoa. Jaialdian, dantza eskolako haur guztiek, 200 denetara, hartu zuten parte.



400 pertsona inguru bildu ziren ostiralean Lanbide Heziketa Institutuko ikasleek antolatutako bertso saioan. Bi ordu iraun zuen jaialdian 6 bertsolari aritu ziren kantuan: German Meabebasterretxea eta Xabier Arrizabalaga "Ziarda" elgoibartarrak eta Andoni Egaña, Jon Maia, Sebastian Lizaso eta Xabier Euskitze. Gai jartzaile lanetan Izaskun Elizburu eta Jon Barandiaran elgoibartarrak izan ziren.

Marrazki Ikastaroa

Ekainaren 1etik 21era bitartean Egur arte tailerrak 30 ordutako marrazki ikastaroa antolatu du. Klaseak asteleheneretik ostiralera bitartean izango dira, arratsaldeko 6etatik 8etara Egurrek Ubitarten duen lokalean. Ikastaroa Aldundia eta Udalaren laguntzaz antolatu du Egurrek. Izena eman nahi dutenek Egurreko lokalean egin ahal izango dute, 6,30etatik 8ak bitartean.

Alboka abesbatzaren kontzertua

Lasarteko Alboka abesbatzak kontzertu bat emango du larunbat honetan gaueko 10,30etan San Bartolome Parrokian. Daniel Adrianen zuzendaritzapean 14 obratako egitaraua eskainiko du Lasarteko abesbatza honek: Of love, Odi et Amo, Rosmarín, Von Alten Liebesliedern, Waldesnacht, Deep River, Libera Me, Ave Maria, Txoriñua nurat hua, Jeiki jeiki, Lili Polit bat, No llores Ne, El eco de una Habanera, Soule, Melodi Gorria eta Pagotako Auzoan.

Caritasen diru-bilketa

Apirilari dagokion diru bilketan, Caritas elkarteak 358.000 pezeta jaso ditu. Hauetatik 259.000 pezeta parrokiari jaso dira, 39.400 pezeta Maalako elizan eta 60.000 pezeta, Zaharren San Lazaro egoitzan.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89


Oraiko
kafetegia

BERISTAIN EDARI BANATZAILEA

- Coca Cola
- Keler zerbeza
- Alzolako Ura
- RAM esnea
- Codorniu
- Lopez Ojeda ardoa

Iñaki 74 38 27

PSE-EEK batzorde lokal berria aurkeztu zuen

PSE eta EE alderdien bateratze prozesuaren ostean, Elgoibarko PSE-EE alderdi berriak batzorde lokalaren osaketaren aurkezpen ofiziala egin zuen joan den astean. Batzorde berriaren presidentea PSE alderdiko Manuel Jauregi izango da eta Jose Manuel Herrero, PSEkoa hau ere, idazkaritza nagusiaren ardura hartuko du. Fernando Suarez (EE) organizazioaz arduratuko da, Nieves Catarainek (PSE) emakumearen idazkaritza eramango du, Antonio Novoak (EE) gazteriaren idazkaritza, Javier Centenok (PSE) hezkuntza, Migel Fernandezek (PSE) sindikatu eta arazo sozialak eta Julian Garmendia (PSE) azkenik, idazkaritza exekutiboaren arduradun izango da.

PSE-EE alderdi osatu berriak emandako prentsaurrekoan herriaren alde lan egiteko prest daudela azaldu



zuten, droga, emakumea, kultura eta euskararen gaiei berebiziko arreta eskainiz. Xabier Maiza tolosarrak, PSE-EEko harreman politikoetarako idazkariak, bi alderdien arteko ezberdintasunak aberastasuna eman-

go diola alderdi sortu berriari adierazi zuen. EEren eszizioari buruz, Elgoibarko afiliatuen %80a PSE-EE alderdiaren aldekoak direla adierazi zuen, gehienak oraindik afiliatu ez diren arren.

EA-EUEek 1.700 botu lortu nahi du Elgoibarren



Pasa den astean, EA-EUE alderdiak azalpen publikoa egin zuen ekaineko hauteskunderi begira. EUEko kide den Juanjo Baztarrikak, EA-EUE alderdia abertzaletasun eta progresismoaren aldeko aukera dela adierazi zuen. Elgoibarko jendea-

rentzat eta HBko botu emaileentzat batez ere, alderdi interesgarria dela azaldu zuen.

Halaber, EA-EUEren asmoa, EAJ alderdiari, gehiengoa kentzea dela esan zuen, "Gipuzkoan, lortuko dugun gauza bat" delarik.

EA-EUE koalizioa, bi alderdien elkarlanaren eta harremanen sendotzearen fruitu dela azaldu zuen Juanjo Baztarrikak eta koalizioaren bi nortasun ezaugarri azpimarratu zituen: batetik, autodeterminazio eskubidearen defentsa, Estatutua sakonduz eta, bestetik, gizarteko ondasunaren banaketa orekatua, herriko klaseen arteko berdintasuna lortuz.

EUEko kidearen ostean, EAKo Jesus Mari Garciak hartu zuen hitza eta "honako hau bi alderdi abertzale koalizioan doazen lehen aldia" dela azpimarratu zuen, "beti ere kontrako jarrera nagusi izan delarik". EAKo kideak EAJ alderdiaren botu kopurua gaintzea dela koalizioaren helburua adierazi zuen. Horrela, hauteskunderen emaitza ona, 1.600 edo 1.700 botu lortzea izango litzateke. Azken hauteskunderetan, EAK 1.200 botu inguru lortu zituen Elgoibarren.

Txankakua elkarteak lehen Batzar Orokorra egin zuen

Txankakua Merkatari eta Zerbitzu elkarteak lehendabiziko Batzar Orokorra izan zuen pasa den astean. Batzarrerako deialdiak erantzun guztiz positiboa izan zuen herriko dendarien aldetik. Bertan, Gipuzkoako Merkatari Elkarteak, zuzendaritzaren berriztapena, balantze ekonomikoa eta beste zenbait gai aztertu zituzten. Txankakua elkarteak 72 bazkidek osatzen dute orain eta, sortu zenean, berriz, duela urtebete, 45 bazkide ziren.

Txankakukoek lagun arteko afari eta afari ostekoak eman zioten bukaera egunari.



Plaza gainezka, Bandaren kontzertuaren grabazioan

Igande eguerdian, Plaza handia jendez bete egin zen Euskal Telebistako kamarek grabatu zuten Bandaren kontzertua ikusteko. Izan ere, jende falta izan da Euskal Herriko bandei buruzko "Kiosko" programakoek izan duten arazorik handiena. Gure herrian, ordea, ez da horrelakorik gertatu, igandean Plazak erakutsi zuen panoramaren arabera. Gure herriko Banda, "Kiosko" programan agertuko den emisio eguna eta ordua aldeztu aurretik jakinaraziko da elgoibartar guztiek programa ikus ahal dezaten.

**BOTA EZAZU
GEROA**

**EMAN BOTOA
PSOEri**

PSE 
EUSKADIKO EZKERRA PSOE

Gehiengoaren aurrerakuntzaren alde

"Euskaraz ikas zitekeen zerbait egin nahi nuen"

Olga Unzilla Elgoibartarrak, lehendabizi medikuntza egitea pentsatu bazuen ere, azkenean kazetaritzako ikasketak burutu zituen.

Froga batzuk gainditu ondoren telebista munduan sartu zen eta, gaur egun, laister emitituko den "Euskal Herritik" programan dago lanean.

- Zergatik aukeratu zenituen kazetaritzako ikasketak?

- Lehendabizi medikuntza egitea pentsatu nuen, baina eskatzen zuten nota ez nuenez, zientzietako beste edozein karre-ratako lehenengo urtea egiten banuen zuzenean medikuntzan sartuko nintzela esan zidaten. Orduan, Geologia aukeratu nuen, baina klaseko giroa ez zen batere ona eta urte bereko ekainean beste zerbaitetan sartu behar nuela pentsatu nuen. Euskaraz egin zitekeen zerbait egin nahi nuen eta, asko pentsatu gabe, kazetaritzan sartu nintzen.

- Noiz eta nola sartu zinen telebista munduan?

- 1986 urteko ekainean sartu nintzen Telebistako informatiboetan. Praktiketako hainbat kontratu egin nahi zituzten. Lehenengo, azterketa bat egin genuen fakultatean. Oso gaizki pasa nuen. Minutu batez estropadetaz hitzegin behar nuela esan zidaten eta, egia esan, gai honi buruz ez nekien ezertxo ere. Hau gainditu ondoren, beste froga bat egin nuen telebistan eta horrelaxe sartu nintzen



"Gehien gustatzen zaidana, kalera irten, ekipoarekin grabazioetara joan eta muntaiak egitea da"

informatiboetan.

- Zer sentitzen da kamararen aurrean lehenengo bider jartzean?

- Nire lehenengo aldia oso ondo gogoratzen dut, Forondako aireportuan izan zen. "Statement" edo kamarareko bat egitea eskatu zidaten. Gogoratzen dut, nik alkandora txuri bat neramala. Alkondarak gaizki ematen zuela eta, kamara batek bere jertsea utzi zidan. Gero, begiak zabaldu ezin nituela eta aire-

portuko arduradunak bere betaurrekoak utzi zizkidan. Oso urduri nengoen, ez nekien nora begiratu ere. Oso gaizki pasa nuen. Baina gauza guztiak bezala, kamara aurrean gehiagotan jartzen zarenean, azkenean gauza normal bat da zuretzat. Zure lanaren barruan dagoen beste edozer gauza bezala.

- Zer nolako programa mota duzu orain esku artean?

- "Euskal Herritik" izenokoa. ETB 1-ean euskaraz

eta ETB 2-an erderaz emitituko da. Ordu erdiko dokumentalak dira, azken urteotan egin dudana lanaren antzerakoa. Nolabait, gai antropologikoak edo gizartearekin zerikusia dutenak aztertuko ditugu. Momentu honetan egin behar dudana Euskal Herriko Armeriak eta industria honen garapena hasiera hasieratik gaur egunarte aztertzea da, ia desagertzen ari baita.

- Zein da telebista munduan gehien atsegin zaizun arloa?

- Kamara ekipoarekin batera kalera irten eta gauzak grabatzea. Muntaketa lana ere asko gustatzen zait. Agian, azken urteotan errealizadorearekin izan dugun harreman onari esker, muntaia lanean ere parte hartzeko aukera izan dugulako izan daiteke.

- Nor da gehien gustatzen zaizun kazetaria?

- Elene Lizarralde. Berak ziuraski ez du bere burua kazetaritzat hartuko, baina telebistaren munduan norbaitengandik asko ikasi badut, dudarik gabe beragandik izan da, eta hori ez dut inoiz ahaztuko.

Isabel Ansola

Benito Arriola *Gasolindegikoa*



- **Zenbat urte lanbide honetan?**
-23 urte.
- **Bidaia luzeak ala motzak?**
- Motzak hobe.
- **Kotxea ala bizikleta?** - Gaztetan ez nuen bizikletaz ibiltzen ikasi, eta honez gero berandu izango da.
- **Diesela ala gasolina?** - Diesela. Merkeagoa da eta bestea bezain ondo ibiltzen da.
- **Goizeko edo gaueko turno?** - Gaua lo egiteko da, nahiago dut goizekoa edo arratsaldekoa.
- **Gidatzeko orduan prekauziorik hartzen al duzu?** - Edan, ez dut edaten eta normalean bestelako prekauziorik ez.
- **Gustatzen zaizu gidatzea?** - Beno, ez naiz kotxearekin gozaten duten horietakoa, baina ez zait inporta gidatzia.
- **Ze kotxe erosiko zenuke?** - Onak asko daude. Beraz, ez dakit, diru asko behar baita on bat erosteko.
- **Ligatzeko beharrezkoa al da kotxea?** - Ez dakit. Gazte denboran asko ibili nintzan kotxe barik eta zeozer egiten genuen. Kotxea hartu eta gero ezkondu nintzan, beraz...
- **Auto-stop egiten dutenei gelditzeko ohiturarik ba al duzu?**
- Normalian ez naiz gelditzen.
- **Emakumea ala gizonzkoa bolantean?** - Berdin dit. Badaude ondo konduzitzen duten emakumeak ere. Baina orokorrean gizonzkoa hobea dela esango nuke.
- **23 urte hauetan izan duzu lapurretarik?** - Ez. Jainkoari esker ez det izan eta nahi ere ez.
- **Denbora librean zer gustatzen zaizu egitea?** - Pasiatu eta mendira joan.
- **Nora joango zinateke oporretan?** - Berdin zait baina seguruenik Ibizara edo.
- **Zure azken ametsa?** - Mendian etxe der bat edukitzea.

Maite Iriondo

BERTSOTAN

ELGOIBARTARRAK MENDIAN

Doinua: Loreak udan...

Aldez aurretik igo behar da
MORKAIKO ta KARAKATE
goi-mailetako mendietara
zabalduaz hainbat ate
Tontorreraino ailegatzeko
pasatuaz mila neke
mendizaleek askok bezala
beren metak badaukate.

Aurtengo hontan Elgoibartar bat
ANDES alderuntza bira
NANGA PARBAT-a beste batzuek
abiatzekoak dira.
Hauei ere nabari zaie
begietako distira
pauso honetan EVEREST punta
jarriko zaie begira.

Lore Agirreazaldegia

TXIRIBOGA

Taberna

GOSARIAK, PINTXOAK
ETA OTARTEKOAK
Plaza merkatua 23-24

Kide
ileapaindegia

☎ 74 00 69

San Frantzisko, 40-1 ezk.

Pinturas Elgoibar



- Pinturak
 - Enpapelatuak
 - Gotelé
 - Igeltsuzko dekorazioak
 - Lurrak
 - Pintura japoniarra, etab.
- Urasandi z/g
(Anayak etxea)
Tel: 74 39 91

Elgoibarko Hiru Judoka Bizkaiko Sanbo Txapelkun

Pasa den larunbatean, hilak 22, Ibai gimnasioko Egoitz Mora, Maialen Mora, Gorka Garate eta Aitor Garate Galdakaon izan ziren Bizkaiko Sanbo Txapelketan parte hartzeko. Maialen Mora, Egoitz Mora eta Gorka Garatek Bizkaiko Sanbo txapela lortu zuten eta Aitor Garatek, berriz, diploma.

Judoka hauek datorren ekainaren 5ean Gasteizen jokatuko den Euskadiko txapelketan parte hartuko dute. Halaber, Frantziako Peyrehorade herrialdean ospatuko den nazioarteko judo Txapelketan izango dira ekainaren bukaeran.

Arrantza eta "Tiro al plato" lehiaketa

Elgoibarko La Union arrantza eta ehiza elkarteak, arrantza lehiaketa antolatu du iganderako, hilak 30. Lehiaketan, elkartekoez zein herritarrek har dezakete parte. Goizeko 9etan hasiko da lehiaketa eta parte hartu nahi dutenek, Beduara (Zumaia) hurbildu beharko dute hasiera ordua baino zertxobait lehenago.

Datorren astebukaerarako, berriz, ekainak 5, "tiro al plato" txapelketa antolatu du La Union elkarteak San Pedroko tiro zelaian. Honetan ere elkartekoez zein herritarrek izango dute parte hartzeko aukera. Txapelketa goizeko 9 terdietan hasiko da eta ordubiak aldera bukatu.



Aritz Monasterio

Andeetara joango da bakar bakarrik

-Nolatan sortu zitzaizun mendie-kiko zaletasuna? - Zaletasuna txikitatik neukan baina eskalatzen, duela lau bat urte hasi nintzen. Betidanik gustatu izan zait mendian ibiltzea.

-Zein menditan ibili zara? - 23 urte nituela, 3.000ko lehen mendia egin nuen eta hiru urte beranduago Andeetara joan nintzen. Bertan, 5.000 eta piku metrotako pare bat mendia egin nituen eta 6.000 metrotako mendia batetara pare bat saialdi. Baina ez nintzen gailurrera iritsi esperientzia kaxkarra eta aklimatazio faltagatik.

-Eta orain Andeetara zoaz berriro? - Bai. Peruko Huaraz aranera. Orain dela pare bat urte gailurretik 300 metrotara gelditu ginen. Artesonraju mendia igotzen saiatuko naiz, baina ni bakarrik. Orain altitudearen eraginez zer gertatzen den ikasi dudanez, lehenengo, beste mendia batetara joango naiz aklimatazioa egitera. Gero, hiru bat astez atsedean hartu ondoren, Artesonrajura igoko naiz.

-Mendi horrezaz aparte, beste mendiren bat egingo al duzu?

- Nekatu arte. Printzipalena, Artesonraju egitea da eta gero, Huascaran igoko dut bide normalatik. Ahal bada bakarrik hau ere. Han, nirekin batera igotzeko



norbait aurkituko banu, mendia zailago batekin ausartuko nintzateke.

-Zergatik bakarrik? - Lehenago ere, Pirineoetan bakarrik ibilia naiz eta gustatzen zait bakarrik ibiltzea. Beste gauza bat da.

-Ez al da arriskutsuegia bakarrik igotzea? -Bai. Bakarrik, ez zoaz inori lotuta. Zerbait serioa gertatuta ere, badakizu ez duzula inor laguntzeko izango. Horregatik, arreta handiz ibili behar da.

-Beldurrik? - Horixe baietz, baina batzutan jendearekin joanda ere beldurra pasatzen da.

-Zergatik Andeak? - Altitude handiena duen mendikatea da Himalayaren ondoren. Baina altitude handiak baino areago zailtasunak erakartzen nau. Gainera emaztea bertakoa da eta han jende ezaguna daukat.

● Adina: 27.

● Mendia, abentura ala kirola? Biak. Kirola abentura da.

● Zein mendia gustatuko litzaizuke igotzea? Ama Dablan, Xerpen mendia sakratua.

● Eskalatzeko, izotza ala haitza? Izotza.

● Beste kirolak? Bizikleta.

PIZZA CAFE
TEATRO

Pub PELOUSE

San Frantzisko, 43
Tel: 74 20 40

IDO'S

Edergintza

74 34 40
Eskubideen plaza 1 6

GURBIL *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

Emaitza ezin hobeak joku eskolarretako Gipuzkoako txapelketan

Pasa den astebukeraren Donostian jokatu zen Gipuzkoako futbol txapelketan, nesken infantil mailako Ikastolako *Ikasonenak* taldekoek Gipuzkoako txapeldun geratu ziren. *Ikasonenak* taldekoak oso pozik daukela esan digute txapelketa irabazi izanagatik, baina orain helburua, Euskadiko txapelketan ere garaipena lortzea dela azaldu digute.

Garaipen hortaz gain, Herri Eskolako *Lepoluz*

ak taldea bigarren gelditzen infantil mailan, eta Ikastolako *Ikas-hotzak* taldea ere bigarren alebiren kategorian.

Lepoluz taldekoek Azkoitiarren aurka 9 eta 2 galdu zuten finalean baina hala ere, pozik hartu zuten zilarrezko domina.

Ikastolako *Ikas-hotzak* taldekoek ere Azkoitiarren aurka 7 eta 1eko emaitzaz galdu arren, harro daude lortutako bigarren postuarekin.



IKASONENAK: Zutik: Mari Paz Berdonces, Itziar Korta, Nora Bastida eta Mireia Etxeberria. Makurtuta: Maider Martinez, Amaia Epelde, Saioa Rodriguez eta Ainara Sanchez. (Falta dira: Amaia Gabilondo eta Nerea Iñgez).



LEPOLUZEAK: Zutik: Sergio Fernandez, Antonio Gomez, Roberto Mejuto, Iban Badiola eta Manolo Ramos. Makurtuta: Mikel Egia, Alexander Vigar, Ibon Etxaniz, Fernando Mendieta, Nicolas Jimenez eta Zipri Migales.



IKAS-HOTZAK: Zutik: Unai Arrieta, Andoni Mujika, Asier Mujika, Manu Ibarluzea, Josu Zubiaurre Ros eta Xabier Uribeberria. Makurtuta: Jonatan Martin, Josu Gabilondo, Iñigo Gurrutxaga, Jon Juaristi, Ander Oñederra eta Jon Zubiaurre Azpiazu.



I. Eskolarteko Triatloia

Maiatzaren 29an, larunbata, Elgoibarko Izarra Elkartek antolatzen duen *Ez dok amaitu!* 93 egitasmoaren baitan, I eskolarteko Triatloia ikusteko aukera izango da.

Froga honetan Elgoibarko ikastetxeetako OHOk 4,5,6 eta 7. mailako haurrek parte hartu ahal izango dute. Kirolei dago

kienean, bizikleta, korrika eta patinak izango dira partaideek izango dituzten frogak. Eskolarteko triatloioi honetan hirukoteek eman behar dute izena, haur bakoitzak kirol batean parte hartuko duenari.

Kirol froga hau Plaza Handian izango da eta arratsaldeko 4etan emango zaio hasiera.

Anoetako Estadio berriko jarlekuen erretserba

Errealeko elgoibartar zaletu talde bat Anoetako estadio berriko jarlekuen edo plazen erretserbak egiteko gestioekin hasiko da laster, datorren denboraldian Errealak jokatuko dituen partiduak denok batera ikusteko asmoaz.

Printzipioz, estadioan hartuko luketen lekua, alboko tribunetarikoa bat izango litzateke. Denboraldiko prezioa 21.000 eta 26.000 pezeta bitartekoa da nagusientzat. Junior, jubenil eta infantilentzako beharpenak egingo dira.

Interesa edukiz gero, *Aterpe* tabernan izena eta beharrezko datu pertsonalak eman daitezke. Ekainaren 4rako dokumentazio guztiak prest egon beharko du *Aterpe* tabernan, Donostiara lekua aukeratzera joan beharko duten eguna zehaztu ahal izateko.

Jende ugari mendi itzulian



↳ Eguraldi onak ibilbide guztian zehar lagundu zuen.

Eguraldi ona eta jende aldetik partaidetza handia izan ziren Elgoibarko mendi itzuliaren ezaugarri nagusiak. 81 pertsona bildu ziren Elgoibarko mendiak zeharkatzeko. Guztietatik 71 mendizalek burutu zuten ibilbide osoa, eta lehenak, 7 ordu eta 23 minututan egin zuen itzulia. Guztira 40 kilometro bete zituzten mendizaleek. Aste hau, mendiari

eskaini dio Morkaiko. Asteartean Ramon Garatek mendiko istripu eta hauen prebentzioari buruzko hitzaldia eman zuten Kultur Etxean. Ostegunean, berriz, Adolfo Madinabeitiak diapositiba eta zine saioa eskaini zuen Herriko Antzokian. Saioan "Salto del Angel"en (Veneuela) eta "Gran Torre del Trango"n (Pakistan) ateratako diapositibak ikusi ahal

izan genituen.

Igandean, hilak 30, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearekin batera "Lurra eta Hizkuntzaren eguna" ospatuko du Morkaiko elkarteak. Jai honekin batera mendizale elkarteak urtero antolatzen duen "Finalistaren eguna" opatuko du San Pedroko zelaietan. Morkaiko San Pedrorra hurbil daitezen animatu nahi ditu elgoibartarrak.

ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA - F.M.87.7

**24 orduz
zuekin**

Arrate ☎ 212 (20.600) Eibar
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

ILEAPAINDEGIA

FADEK
SOLIDARIUM

Rosario Kalea, 35 behe
☎ 74 26 92 Elgoibar

Erretailak

Z
GAILUR

Teilatu
konponketak

☎ 74 34 86
☎ 75 15 33

BEKI

**KIROLERAKO
ZAPATILAK**

adidas

NIKE **AVA**
Reebok

ROSARIO, 31

ELGOIBARKO LANBIDE HEZIKETARAKO INSTITUTUA



***Aurreinskripzioa maiatzaren 31
arte zabalik daukazue!***

▶ **REM 1. ZIKLOA**

▶ **ADMINISTRAZIO ETA GESTIOAREN BATXILERGOA (BAG)**

▶ **BATXILLERGO TEKNIKO INDUSTRIALA (BTI)**

▶ **LH II AUTOMOZIOA**

▶ **M3 ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA GESTIOA**

▶ **M2 BARNE KOMERTZIOA**

Trikitilari eskola: zaletasuna goraka

Azkoitiko Zabale aita-semeak eta Lourdes Alkorta dira gure herriko trikitilari eskolaren arduradunak. 1987. urtean sortu zen eskola eta ordudanik pertsona mordo bat aritu izan da soinua eta panderoa jotzen ikasten. Egun 80 ikasle ditu eskolak. Zaletasuna goraka doan seinale, dudarik gabe.



AZKUE

↳ Trikitixa goraka doa gure herrian. Haur talde honek hori erakusten du.

Zabale anaiak festatara trikitixa jotzera etorri zireneko aldi batean, zinegotzi batek herrian mugimendu gutxi zegoela eta, trikitixa irakasteko proposatu zien. Horrela hasi ziren 10 bat lagunekin klaseak ematen. Urtebete pasa arte ez zirela emaitzak igarri diosku Zabale anaietako batek. Kanean trikitixa eta panderoa jotzen ikustean jendea animatu egin omen zen. Denborarekin ikasle kopurua gehituz joan da eta orain, esaterako, soinuuko klasea beteta dago. 50 gazte zein nagu-

si ari dira soinua ikasten eta 30 panderoa. Astean hiru egunetan ematen dituzte klaseak, astearte eta asteazkenetan bi orduz eta larunbat goizetan hiru bat orduz. Zabale anaietako batek eta aitak panderoa jotzen eta kantatzen irakasten dute, eta beste anaiak eta Lourdes Alkortak soinua jotzen.

Bostpasei urte hauetan egindako lanak badu urtean zehar non adierazi. Gabon Zaharreko feria egunean ohizkoa bihurtu da herriko trikitilarien kalejira. Urtero ere jaialdi

bat eskaintzen dute bertoko ikasle guztiekin. Aurtetik ekainaren 11an izango da jaialdia. San Bartolometan eta auzoetako jailetan ere bikote bat edo beste aritzen da jaiak alaitzen. Herriko edozein elkarterek antolatzen dituen ekitaldietan ere parte hartzeko prest daude beti.

Trikitilari eskola irailan hasi eta uztailaren bukaera arte dago martxan. Langile finek bezalatsu, abuztuaren bakarrik egiten dute jai. Orain Ikastolak lagatako Aita Agirre Plazako lokaletan

ematen dituzte klaseak baina gogoan dute Zabale anaietako parrokiako lokaletan klaseak ematen zituzteneko garaia.

Irakasleez gain, bost gurasoz osatutako batzorde batek eraman du eskolaren gestioa, diru kontuak eta horrelakoak. Trikitilarien artean denetik dagoela dio Zabalek, alperkeria handia batez ere. Baina zaletasunik ez zaiela falta dio, eta berau da, izan ere, bikoteak ateratzeko behar dena.

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

PUB

elgoibar

rambarri

ASEGURUAK

San Bartolome 15 Tel. 74 3037


Shanti Oriaren margoak Kultur Etxean

Shanti Ori duela 22 urte hasi zen margotzen, soldaduzkatik bueltan, hain zuzen. Autodidakta betidanik, Julen Zabaletak laga zion koloreen nahasketari buruzko liburuxka bat izan da eduki duen laguntza bakarra. Elgoibarren jaio-takoa, San Frantzisko kalean, Azkoitira ezkondu zen.

Dakien guztia bere kabuz ikasi du. Artetxan, pintzela eskua hartuta, ekinaren ekinaz ikasi du perspektiba, tonu eta kolore ñabardura egokiak lortzen.

Autoerretratuak, erretratuak, irudiak eta lekuak pintatzen ditu Shantik. Eskultura ere lantzen du elgoibartar honek. Urtutako brontzean egindako lanak direla esaten du Shantik. Lehendabizi argizariaz egiten du irudia eta gero urtu. Emaitza, brontzezko eskulturak dira.


Astebukaera honetatik ekainaren 13ra arte, Shantiren 50 kuadro eta hainbat eskultura daude ikusgai Kultur Etxean. Aukera ezin hobea, beraz, margolari elgoibartar honen lana eza-gutzeko.



B A T E G I N I K

EUSKO ALKARTASUNA
ETA EUSKAL EZKERRA
bat eginik ari gara,
demokraziaren, bakearen,
justiziaren, elkartasunaren
eta aurrerabidearen aldeko
lanean eman dugun onena
elkartzeko.

... eta eraginkortasunez eta
zintzotasunez lan egiten
dutela erakutsi duten
konfiantzazko pertsonekin
jarraituko dugu aurrera.



Euskadi desberdina eta
irekia elkartasunean
gauzatuko duten
pertsonekin,
euskaldunok beste
inoren menpe egon
gabe gure etorkizuna
eraikitzeko geure
erabakiak har
ditzagun. Zure eta
zure familiaren
benetako
ongizatea lortzeko.

BOTA EZAZU



EA EUE
B A T E G I N I K



29 Larunbata

11,00 HERRIKO ELKARTEEN TOPAKETA

Tokia: Foruen plaza
Antolatzailea: Errotatxo
(Prebentzioaren astearen barruan)

10,00 GURUTZE GORRIAREN ASANBLADA

Tokia: Kultur Etxea

13,00 MANIFESTALDIA

Drogaren aurkako manifestaldia
Tokia: Plaza handia
Antolatzailea: Errotatxo

19,30 ZINEA

"Porqué lo llaman amor..."
Zuzendaria: Manolo Gomez
Aktoreak: Veronica Forqué, Jorge
Sanz, Rosa M^o Sardá eta
Fernando Guillén.

Z I N E A

"¿Por qué lo llaman amor cuando quieren decir sexo?"

Pelikula honek Groucho Marxek esandakoari zor dio titulua. Manolo Gomez Pereiraren pelikula hau komedia sentimental bat da. Pelikula pornoak antzes-ten dituen interprete batek bere espektakulurako bera baino 15 urte gazteagoa den mutikoa kontratatzen du. Mutikoaren aita, psikologia katedraduna da eta, ama, emakume guztiz konbentzionala.

Z I N E A

14,30 BAZKARI HERRIKOIA

Postrean, sorpresa: (Tarta Dakin)
Tokia: Maalako parkea

16,00 I. ESKOLARTEKO TRIATHLOIA

Parte hartzaileak: OHOk 4, 5, 6,
eta 7. mailako haurrak
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

20,00 ANTZERKIA

Taldea: Algara
Lana: "Katzu, koka aitona"
Tokia: Kiroldegia
Antolatzailea: Errotatxo

22,30 LASARTEKO ALBOKA ABESBATZAREN KONTZERTUA

Tokia: San Bartolome eliza
Antolatzailea: Musika eta Dantza
Fundazioa

30 Igandea

9,00-13,00 ARRANTZA LEHIAKETA

Tokia: Bedua (Zumaia)
Antolatzailea: La Union

9,30 MORKAIKORA IRTEERA "Lurra eta Hizkuntzaren eguna"

San Pedron Meza, Finalista
eguneko domina banaketa,
lagunarteko bazkaria, etab...

16,30 ZINEA

"Los bicivoladores"

19,30 ZINEA

"Porqué lo llaman amor..."

31 Astelehena

19,30 ZINEA

"Porqué lo llaman amor..."

1 Asteartea

18,00-20,00 MARRAZKI IKASTAROA

Tokia: Egur, Ubitarte, z/g
Antolatzailea: Egur
Ikastaroak 21a arte iraungo du.

4 Ostirala

18,00 TRINITATEKO DANTZALDIA

Tokia: Zaharren Biltokia

23,00 ROCK KONTZERTUA

Taldea: BAP eta EHUN KILO
Tokia: Maalako Parkea

GORRINO
dekorazioa

San Bartolome, 21 -tel. 74 01 91- 20870 Elgoibar

Murumendiarrak
ELGOIBAR

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

*Eskulanean
saiatzen gara*
Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak

29 Larunbata

**11,00 HERRIKO ELKARTEEN
TOPAKETA**

Tokia: Foruen plaza
Antolatzailea: Errotatxo
(Prebentzioaren astearen barruan)

**10,00 GURUTZE GORRIAREN
ASANBLADA**

Tokia: Kultur Etxea

13,00 MANIFESTALDIA

Drogaren aurkako manifestaldia
Tokia: Plaza handia
Antolatzailea: Errotatxo

19,30 ZINEA

"Porqué lo llaman amor..."
Zuzendaria: Manolo Gomez
Aktoreak: Veronica Forqué, Jorge
Sanz, Rosa M^o Sardá eta
Fernando Guillén.

Z I N E A

"¿Por qué lo llaman amor cuando quieren decir sexo?"
Pelikula honek Groucho Marxek esandakoari zor dio titulua. Manolo Gomez Pereiraren pelikula hau komedia sentimental bat da. Pelikula pornoak antzes-ten dituen interprete batek bere espektakulurako bera baino 15 urte gazteagoa den mutikoa kontratatzen du. Mutikoaren aita, psikologia katedraduna da eta, ama, emakume guztiz konbentzionala.

Z I N E A

14,30 BAZKARI HERRIKOIA
Postrean, sorpresa: (Tarta Dakin)
Tokia: Maalako parkea

**16,00 I. ESKOLARTEKO
TRIATHLOIA**

Parte hartzaileak: OHOk 4, 5, 6,
eta 7. mailako haurrak
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

20,00 ANTZERKIA

Taldea: Algara
Lana: "Katzu, koka aitona"
Tokia: Kiroldedia
Antolatzailea: Errotatxo

**22,30 LASARTEKO ALBOKA
ABESBATZAREN
KONTZERTUA**

Tokia: San Bartolome eliza
Antolatzailea: Musika eta Dantza
Fundazioa

30 Igandea

**9,00-13,00 ARRANTZA
LEHIAKETA**

Tokia: Bedua (Zumaia)
Antolatzailea: La Union

**9,30 MORKAIKORA IRTEERA
"Lurra eta Hizkuntzaren eguna"**

San Pedron Meza, Finalista
eguneko domina banaketa,
lagunarteko bazkaria, etab...

16,30 ZINEA
"Los bicivoladores"

19,30 ZINEA
"Porqué lo llaman amor..."

31 Astelehena

19,30 ZINEA
"Porqué lo llaman amor..."

1 Asteartea

**18,00-20,00 MARRAZKI
IKASTAROA**

Tokia: Egur, Ubitarte, z/g
Antolatzailea: Egur
Ikastaroak 21a arte iraungo du.

4 Ostirala

**18,00 TRINITATEKO
DANTZALDIA**

Tokia: Zaharren Biltokia

23,00 ROCK KONTZERTUA
Taldeak: BAP eta EHUN KILO

Tokia: Maalako Parkea

GORRINO
dekorazioa

San Bartolome, 21 -tel. 74 01 91- 20870 Elgoibar

*Eskulanean
saiatzen gara*

Muruamendiarrak
ELGOIBAR

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45


Pastelak
Tartak
Izozkiak
Banboiak

ikus

OPTIKA


San Frantzisko 16.

Tel: 74 37 34



Izen hobereneko etxeak
zure esku

Teknologia aurreratuenarekin
errebisioak DEBALDE



ZABALTZE PROMOZIOA EKAINA ETA UZTAILA BITARTEAN

BAUSCH & LOMB lentilak **16.500 pta.**

(Urte beteko garantiarekin)